

Tolosako liburutegietara 'Irakurri gozatu eta Oparitu kanpaina' dator gaur eta bihar

TOLOSA. DV. Apirilaren 23tik uztailaren 24era Euskal Herriko herri ugaritan jarriko da martxan Irakurri Gozatu eta Oparitu egitasmoa. Aurten, lehenengo aldiz, Tolosan ere egingo da Galtzaundi Euskara Taldearen ekimenez.

Irakurri Gozatu eta Oparitu, irakurzaletasuna sustatzea helburu duen egitasmo berritzailea da. Aurreko aldiak Euskal Herriko herri ezberdinetan izan zuen erantzun ona ikusita, eta Galtzaundik, egitasmoaren helburu eta irizpideekin bat egiten duenez, Tolosara ekartzea erabaki du. Tolosako liburutegiekin eta Elkar liburudendarekin elkarlanean gauzatuko du proiektua. Funtzionamendua Apirilaren 23tik, (liburuaren nazioarteko egunetik) uztailaren 25era, Tolosako edozein udal liburutegitan euskarazko edozein liburu maileguan hartu eta irakurri egin behar da.

Liburua itzultzean, liburuzainak emandako fitxa bete behar da, liburuari buruz iritzia emanez. Adin tarte bakoitzeko fitxa bana egongo da, eta txikienen kasuan heldu batek beteko dio formularioa. Fitxa betetakoa, liburuzainak opari-txeke bat emango dio irakurleari. Honekin, %25eko deskontua egingo diote Elkar liburudendan euskarazko edozein liburu erosterakoan.

Gainera, Galtzaundi Euskara Taldeko bazkideek beste %25eko deskontu gehigarria izango dute, aurrekoarekin metagarria izango dena. Deskontuak inoiz ezingo du 25 euro baino gehiago izan. Liburu gomendagarrien zerrenda Topaguneak, euskarazko 100 liburu gomendatzeko eskumena ere hartu du. Uxue Alberdi idazleak osatu du 90 liburu gomendagarriren zerrenda. Galtzaundi Euskara Taldeak, beste hamar liburu gomendagarri gehitu dizkio zerrenda horri. Zerrenda honetan, adin tarte guztietarako egokiak diren liburuak sartu dira. Zerrenda hau, Irakurri Gozatu eta Oparitu egitasmoaren web gunean kontsultatu daiteke.